

Jane McAleveyrekin elkarrizketan

Democracy now! saioan

2024ko apirilaren 23an

Amy Goodman: **Hau da Democracy Now!**

Amy Goodman naiz, Juan Gonzalezekin batera.

Hurrengo minutuak Jane McAleveyrekin pasako ditugu, antolatzaile sindikal bikaina, irakasle eta idazlea. Haren eragina agerian geratu zen joan den astean, Chattanooga (Tennessee) Volkswageneko langileek, Autogintzako Langileen Batasuneko Sindikatuarekin bat egitearen alde bozkatu zutenean.

Lantegia, Ameriketako Estatu Batuetako hegoaldean, jabetza atzerritarra izan eta sindikalizatzen den lehena auto-fabrika bihurtuko da.

Garaipen erabakigarria greba historikoaren eta iaz AEBtan autogintzako hiru enpresa nagusienekin lorturiko hitzarmenen ondoren dator.

Izan ere, UAWk herrialde osoko autogintzako langileak sindikalizatzeko konpromisoa hartu zuen.

Igandean, Shawn Fain UAWko presidentek hitz egin zuen, Labor Notesek antolatutako jardunaldian.

Shawn Fain: Tennesseeko Chattanooga, lau mila langilek jende askok ezinezkoa zela esaten zuena egin zuten.

Adituek ezinezko zela ziotena egin genuen.

Elkarrizketetan AEBetako hegoaldea antolatzeari buruz hitz egiten genuen bakoitzean, beti begiak zuri jartzen zituzten eta esaten zuten: benetan uste duzu hegoaldean irabaz daitekeela?

Eta badakizue zer?

Langile horiek euren burua defendatu zuten.

Horrela irabazi genuen, eta sindikatu baten alde bozkatu zuten.

Amy Goodman: **UAW bere hurrengo borrokarako prestatzen ari da, Vance-n, Alabaman, AEBetan Mercedes sindikalizatzeko hauteskundeak irabazteko.**

Mundu osoan sindikalizatu gabe dauden Mercedesen lantegi bakarrak.

Hori Auzitegi Goreneko epaileak ahozko ikustaldia egiten ari diren bitartean gertatu da. Starbucksek Lan Harremanen Batzorde Nazionalaren aurka aurkeztutako kasu baten inguruan. Epaiak eragina izan dezake enpresek kanpaina sindikaletan eragiteko duten gaitasunean.

Gaian sakontzeko, Jane McAleveyregana jo dugu.

Langile mugimenduaren antolatzailea izan da 20 urte baino gehiagoz, eta lau liburu idatzi ditu, tartean

- **"Rules to Win By" (Irabazteko arauak) eta**
- **"Power and Participation in Uni?n Negotiations" (Boterea eta parte-hartzea negoziazio kolektiboan), Abby Lawlorrekin idatzia.**
- **"Collective Bargain" (Negoziazio kolektiboa) eta**
- **"Unions Organizing in the Fight for Democracy" (Antolakuntza sindikala**

eta demokraziaren aldeko borroka),ere idatzi ditu beste liburu batzuekin batera.

Plazer handia da zu gurekin izatea, Jane.

Bi gairi buruz hitz egingo dugu.

Aparta zara.

Jarraitu beharreko eredia eta estrategia bikaina zara mugimendu sindikalean, baita une honetan aurre egiten ari zaren zure borroka pertsonalean ere.

Baina, Chattanoogaarekin eta UAWren garaipenaren garrantziarekin hasi nahi dut.

Jane McAlevey: Bai, istorio handia da.

Hau da, automobilgintzako 4.300 langile ari ziren Tennesseeko Chattanooga, enpresa sindikalizatzeko hirugarren ahaleginean.

Zintzoki uste dut, sindikatu bat izan behar zenuten han duela 10 urte edo, gutxienez, duela sei urte.

Baina garaipen hau ez zen garaipen soil bat izan.

Jipoi bat izan dela esango nuke.

Hau da, patronala %72ko babesarekin garaitu zuten.

Zenbakiak harrigarriak dira.

Gertatutakoaren handitasunaren zati bat da, Chattanooga argi erakutsi dutela hamarkadetan esan, idatzi eta praktikatu izan dudana; hau da, supergehiengoaren estrategia garatu dute.

Esan zuten, ez zirela hauteskundeetara aurkeztuko euren aldarrikapenekin konprometitutako langileen supergehiengoa deitzen duguna izan arte. Hau da, gehiengoa BAI bozkatzeko prest zeudela ziurtatu arte.

Eta "BAI bozkatzeko prest gaude" aldarrikapenarekin hasten zarenean patronalari bidaltzen diozun mezua da: "Zure bila goaz"

Eta horixe egin zuten, hain zuzen ere.

Festak egiten ari ziren.

Kamiseten festak egiten ari ziren.

Kamiseta gorriekin ibili ziren fabrika horretan hauteskunde aurreko asteetan.

Irabazi ditugun kanpaina zailenetan jorratu ditugun edukiak landu eta mezuak bidaltzen ari ziren.

Egia esan, ez dut ezagutzen zaila ez den kanpainarik.

Hori da, hain zuzen ere, egiten duguna.

Hori guztia irabazten joan gara azken 40 urteetan. Eta bitartean, lurraldeko buruzagi sindikal askok teorizatzen zuten ezinezkoa zela irabaztea... lan-legedia aldatzea ezinbestekoa zela...

Gauza horiek guztiak egin behar ditugu, noski, baina benetan egin behar duguna da konfiantza izaten hasi langileak benetan argiak direla; irabazteko behar dena irakasten badiegu, hau da, hauteskundeen aurretik gehiengo kualifikatua duen antolakuntza eraikitzen irakasten badiegu, horrek lehen hitzarmena lortzeko borroka handi batera eramango ditu.

Eta hori da, hain zuzen ere, Chattanooga egin zutena. Eta espero dut Alabamara ere gauza bera egitea.

Maiatzaren 17an Mercedesen fabrikan sartzea lortzen badugu, horrek gure herrialdearen hegoaldea astinduko du.

Juan Gonzalez: Bai horixe! Horri buruz galdetu nahi nizun, Jane, Alabamako borrokari buruz. Baita Estatu Batuetan lantegiak dituzten autogintzako konpainiak beraien fabrikak herrialdearen hegoaldera lekualdatu izanaz eta hauen sindikalizazioari buruz ere.

Jane McAlevey: Juan, pozten naiz zu ikusteaz, baita zu ere, Amy.
Bai, honetaz hitz egin nahi dut... Begira!
Volkswagenek ez zuen munduan ordezkari bat sindikalik gabeko auto fabrika bakar bat ere.
AEBko hegoaldea eskuin antisindikalaren gotorleku bat denaren ideiak, langileek ordezkari bat sindikalik ez zuten munduko leku bakarra izateak, alegia, asko esaten du zeinen apurtuta dauden AEB.
Lan zuzenbideak zaildu egiten du hori guztia.
Politika Ekonomikorako Institutuak esan zuen, duela gutxi egindako inkesta batzuetan oinarrituta, 60 milioi langile estatubatuarrek, 60 milioi, sindikatu bat izango luketela bihar, askatasunez eta justuki bozkatzeko utziko balitzaie.
Eta Mercedesen ikusten ari garena Chattanoogaetik ezberdina da.
Chattanooga, Alemaniako IG Metall sindikatuarekin akordio bat egon zen, eta hark lagundu egin zuen.
Ez zuen erabat arindu patronala Chattanooga egiten ari zena, baina dagoeneko Mercedeseko plantan ikusten ari garen gerra zikin mota hori baretzen lagundu zuen; bertan, denetik esaten duten kartelak dituzte, hala nola, UAWk Joe Bideni babes eman ziola...
Hegoaldeko sindikatu batek horrelakorik egin dezakeen...
Antzezten ari ziren.
Azken astean hainbat lagun kaleratu dituzte Mercedeseko lantegian.
Beraz, uste dut Mercedesek Volkswagen Chattanooga fabrikatik jaso zuen informazioarekin ondorio bat atera zuela:
"Tennesseeko Chattanooga gorpua bat izan da, erabateko garaipena.
Gauzak aldatzen ari dira".
Sindikatu lehertzen saiatzeko ahal duten guztia egingo dutela erabaki zuten.
Beraz, hemendik eta maiatzaren 17ko bozketa arte, gutariko bakoitzak mezu elektronikoak bidali behar ditu, UAWk langile horiei laguntzeko ahal duen guztia egin dezala eskatuz.
Hori guztia Alabamako langileek bultzatzen dute .
Bada garrantzitsua den zerbait eta esan nahi dudana.
Mercedeseko lantegiko langile batzordea, sindikatu langileen babesarekin, langileek zuzendutako mugimendu ikaragarria da.
Herrialdeko lan-legedia eta enpresetan sindikatuak eratzeko baldintzak kontuan hartuta, beharrezkoa da langileei laguntzeko eta aholkuak emateko langile profesionalak izatea.
Baina Mercedeseko lantegiko mugimendu hori, zehazki, langileek seriozki bultzatutako kanpaina bat da, baina ezin gara pasiboki egon langileek BAI bozkatzeko dutela sinetsita.
Gertatuko balitz, aldaketa izugarria izango litzateke AEBko hegoaldean.

Juan Gonzalez: **Shawn Fainek horretan duen paperaz galdetu nahi nizun. Labor Notes-eko hitzaldi batean hitz egin zuen. Labor Notes-ekin ohituta ez dauden pertsonentzat. Labor Notes, hamarkadetan, oinarrizko mugimenduak babesten aritu den erakundea da. Eta UAWko presidente batek Labor Notes-eko konferentzia batean hitz egitea, ez da batere ohikoa. Zein da mugimendu demokratikoak UAWren barruan duen eraginaz eta langile mugimenduan duen eraginaz duzun pertzepzioa?**

Jane McAlevey: Bai.
Esan nahi dut hau poz iturri pertsonala dela, UAWko kidea naizelako duela urte askotatik; 48.000 langile protagonista izan zituen grebaren parte ere izan nintzen. United Auto Workers sindikatuaren demokrazia zuzena lortzeko ekimenaren alde bozkatzeko plazera izan nuen, eta gero Shawn Fainen alde lan egin nuen, Mendebaldeko Kostan bere hautagaitzarako dirua biltzen.
Beraz, martxoaren hasieran hauteskundeak oso modu lehiatuan irabaztetik eta ozta-ozta boterea hartzetik... martxoaren amaieran ikustera, lau urtean behin egiten diren negoziazio nazionaletan sartzen, aurrekaririk gabeko grebak bultzatzen eta buru izaten, sekulako garaipenak lortuz...
Eragin zuzena izan zuen Chattanoogaoko langileengan, esanez:
Aizue, horrelako zerbait nahi dugu, ezta?
Adibidez, orduko 40 dolarrerreko gutxienera iritsi nahi dugu, egun Tennesseeko Chattanooga ditugun 30 dolar eskasen orde.
Beraz, Shawn Fain geroz eta gehiago behar ditugun lider sindikal horietako batean bihurtzen ari da. Horrelako askoz gehiago behar ditugu.
Eta oso pozik nago nire sindikatuko presidente izateaz.
Eta pozik nago Shawn Fain boterera iristen lagundu zuen demokrazia zuzenaren mugimenduan parte hartu ahal izan dudalako. Ikusten ari gara zer egin dezakeen lider sindikal ausart, estrategia eta adimentsu batek urtebete baino gutxiagoan.
Mugimendu bat sortu du 12 hilabete baino gutxiagoan.

Amy Goodman: **Jane McAlevey, zure ahots ikaragarri indartsuak hori adierazten ez duen arren, lan eskubideen alde borrokatzeaz gain, minbizi terminal baten aurka borrokatzen ari zara 2021eko udazkenetik, mieloma anizkoitz gisa diagnostikatuta. Orain dela gutxi artikulu bat idatzi zenuen, izenburu honekin: "Lan oro utzi dut etxeko ospitalizaziora jotzeko, geratzen zaidan denboragatik". Hitz egin diezagukezu borroka honetaz?**

Jane McAlevey: Bai, noski.
Esan nahi dut bere amaierara iristen ari den borroka bat dela.
Arrisku handiko mieloma anizkoitzaren forma bat jaso nuen, oso arriskutsua.
414 mutazioa du izena.
Eta lehen egunetik esan zidaten urte gutxi batzuk geratzen zitzaizkidala bizirik.
Eta ez nuen atzera begiratu.
Hurrengo egunean esnatu nintzen eta antolatzen jarraitu nuen. Medikuei arreta handia eskaini nien, kimioterapiatik pasatzen nintzen, erradiatziotik, baina, berehala, gaitza tratatzeko zegoen guztia agortzera iritsi ginen.
Entsegu klinikoetan ari nintzen.
Sendagai esperimentalekin entseguak egiten.

Baina, puntu honetan, nire minbizia entsegu klinikoetako botiken aurretik dago, eta ez da besterik geratzen.

Orduan, duela zenbait aste, aste batzuek ospitaleratu ninduten, eldarnioekin, askotan gertatzen zait azken hiru urteetan.

Ospitaleratu egiten ninduten, eta ez nekien inguruan zer gertatzen zen.

Duela ate batzuek, hilko nintzela uste zuten.

Berriro atera naiz.

Bizikletan nabil.

Zure programan nago.

Eta azken minutura arte borrokatuko dut. Izan ere, horrek balio behar die langile estatubatuarrei.

Amy Goodman: Beno, benetan sinestezina zara.

Eta hau ez da gure elkarrizketaren amaiera.

Saioaren amaiera da, baina bigarren zati bat egin nahi genuke zurekin, eta gehiago hitz egin langile-mugimenduaren historiari buruz. Horrez gain, atzera egin nahi genuke, zure ikasle garaietara, apartheidaren aurkako mugimenduaz hitz egin eta kanpaldi haiek herrialde osoan izan zuten esanahiaren inguruko jardun.

Jane McAlevey: Bai. Oso irudi familiarak dira niretzat, ikasle aktibista garaikoak.

Amy Goodman: Eta asko duzu jendeari erakusteko.

Askok eskertu nahi dizut gurekin egoteagatik eta eskaini diguzun guztiagatik. Ez bakarrik langileen mugimenduari emandako, baita zure gizatasuna, zure antolakuntza lana, zure distira eta estrategiari ere.

Eskerrik asko.

Bigarren zatia berehala egingo dugu.

Jane McAlevey, 20 urtez sindikatuko antolatzailea.

Hau izan da gure programa.

Elkarrizketa ikusteko, joan hona: democracynow.org.

Amy Goodman naiz, Juan Gonzalezekin batera.

Elkarrizketaren 2. zatia

Amy Goodman: Hau Democracy Now da!, democracynow.org, gerrari eta bakeari buruzko txostena.

Amy Goodman naiz, Juan Gonzalezekin batera.

Elkarrizketaren bigarren zatiarekin jarraitzen dugu, Jane McAleveyrekin.

Langileen mugimenduaren antolatzailea da duela 20 urte baino gehiagotik eta ezaguna langile mugimenduari buruzko liburuengatik.

Jane McAleveyk idatzi du

- "Rules to Win By" (Irabazteko arauak),
- "Power and Participation in Union Negotiations" (Boterea eta parte-hartzea negoziazio kolektiboan), Abby Lawlorrekin idatzia. Jane McAleveyk idatziak dira, ere,
- "A Collective Bargain" (Negoziazio kolektiboa),
- "Unions Organizing in the Fight for Democracy" (Antolakuntza sindikala eta demokraziaren aldeko borroka),
- "No Shortcuts, Organizing for Power in the New Gilded Age" (Ez dago bidezidorrik. Urrezko aro berrian boterea irabazteko antolakuntza) eta
- "Raising Expectations and Raising Hell, My Decade Fighting for the Labor Movement" (Itxaropenak handitzen eta istiluak sortzen. Nire hamarkada langile mugimenduaren alde borrokan).

Jane ere, bere bizitzaren alde borrokan ari da.

Mieloma anizkoitza du.

Duela urte batzuk diagnostikatu zioten; hiru bat aldiz jo dute hiltzat.

Baina bera hemen eserita dago, estudioan.

Duela gutxi artikulua bat idatzi zuen: "Lan oro utzi dut etxeko ospitalizaziora jotzeko, geratzen zaidan denboragatik".

Jane, asko dago zurekin hitz egiteko.

Ikaragarria da zu hemen eserita egotea, zure ahots indartsuarekin eta zure presentziarekin.

Zaila da sinestea zure bizitzaren amaierari dotorezia eta distira horrekin aurre egiten ari zarenik.

Horrekin has gaitzkeen galdetzen nion neure buruari.

20 urtez, herrialde osoko enpresaburuen eta patronalen aurka aritu zara.

Eta orain hitz egiguzu ospitalera sartzeko eta handik irteteko borrokaz eta zure familiako aurrekariak direla eta luzaroan jakin duzunaz. Izan ere, zure ama minbiziak jota hil zen eta zure arreba ere bai.

Jane McAlevey: Bai.

Dakizun bezala, niretzat oso interesgarriak izan ziren ikasle antolakuntzako urteak, baita ondorengoak ere. Mugimendu ekologistetan ere militatu nuen.

Askotan ahaztu egiten dira urte hauek. Jendeak orain naizena bezala ezagutzen nauelako. Badakizu, antolatzaile sindikal aztoratzaile moduko bat, "haien bila" doan horietako. Eta oso harro nago horretaz.

Ni Highlander Centerren bizi nintzen.

Mugimendu sindikalera iritsi nintzenean, atezainekin, haur zaintzaileekin, udal

langileekin lan egin nuen. Badakizu, era guztietako langileekin.
New Englandeko 3. adineko egoitzetako langileekin hasi nintzen lanean, gehienak emakume beltzak eta azal ilunekoak, oso indartsuak.
Nire indarra eguneroko borroka sindikaletan lan egiten dudan pertsonen indarretik hartuko banu bezala da.
Baina denborarekin, ospitaleetako antolakuntzaz arduratzera pasa nintzen.
Erizainen antolakuntza, baita ospitale osokoa ere.
Oso interesgarria izan zen niretzat.
Nire lehen minbizia 2009an izan zen.
Ez dut asko hitz egin horri buruz, nahiz eta Raising Expectations (Itxaropenak handituz) lanaren amaieran kontatzen dudan (Itxaropenak handituz).
Beraz, gene hau daukat, BRCA1 genea.
Honela jaio nintzen.
Badakigu ez duela soilik obulutegiko minbizia ematen. Izan ere, obulutegiko minbizia fase goiztiarrean izan nuen, 2009an.
Horretaz aritu nintzen lehen liburuan.
Urtebetez eserita egon nintzen, aspertuta.
Ez nekien zer egin.
Eta lagunek esaten zidaten:
"Idatzi garaipen hauek guztiak".
Nola egin zenuen?
Bakartuta egon behar izan zenuen?
Besterik gabe. Ezin nuen ezer egin eta...
Bost ebakuntza izan nituen.
Obulutegia tratatzeko operazio asko izan ziren, 2009an bularreko minbiziaren diagnostiko goiztiar baten barruan.
Horrek, halabeharrezko idazlea izatera eraman ninduen.
Beti esaten dudan bezala, ezerk ezin ninduen langileen antolakuntzatik aldendu, minbizi diagnostiko oso txar batek izan ezik. Eta dagoeneko bi aldiz gertatu zait.
Zoritxarrez, lehenengoa soilik lortu dut gainditzea.
Denbora tarte horretan, lau liburu idatzi nituen.
Langileekin kanpaina sinestezin asko egin nituen .
Eta dozenaka mila langile xume gaitzeko trebakuntza programa erraldoi horiek sortzen hasi nintzen.
Hau da, nola egin benetan, Chattanooga goko langileek, besterik gabe, egiten zutena.
Minbiziaren lehen fase horretan, Las Vegasen kanpaina handi baten erdian nengoan, eta erizainei esan nien:
"Ene Jainkoa!
Badirudi arazo bat dagoela.
Gene hau daukat"
Nahiko kezkatuta zeuden horrekin.
New Yorkeko Sloan Kettering-era eraman nahi naute.
Hori sindikalizatu gabeko ospitale bat da.
Eta erizainek esan zidaten:
"Zoaz Sloan Kettering-era oraintxe bertan.

Igo hegazkin horretara.
Arretarik onena behar duzu".
Beraz, oso interesgarria izan zen.
Urtebete, urte eta erdi inguru iraun zuen borroka horrek.
Minbiziaren aurkako borroka pertsonal moduko bat izan zen.
Ez zen hau bezain gogorra izan.
Oraingo minbiziarekin, lehen egunetik, esan zidaten: "Hil egingo zara.
Gauza da noiz gertatuko den hori.
Sendaezina eta terminala da.
Minbiziaren aldaera txar bat duzu".
Mieloma mota ezberdin asko daude.
Eta oso modu larria daukat.
Odoleko minbizia da?
Bai. Odoleko minbizia da.
Bada aldaera bat nirea baino larriagoa, hiru bat hilabeteren buruan heriotza ekarriko lukeena.
Aldaera horren azpitik dago nirea. "414" deitzen diote.
Aldaera bitxia da. Ematen didaten botika bakoitzera egokitzen da.
Beraz, ematen didaten tratamendu bakoitza aztertu egiten du.
Txantxetan esan ohi dut, botere egituraren azterketa egiten duela, nik borroka bakoitzean egiten dudan moduan.
Borroka bakoitza botere egituraren azterketa eginez hasiko balu bezala.
Izaki txiki eta gaizto horien irudi hau daukat.
"Ondo da!
Oraingo honetan,
telequidumab sartu dute.
Zer dakigu honi buruz?"
Eta, gauza txiki horiek sartutako aztertzen dute.
Eta aztertu ondoren, eraso egiten dute.
Eraso egiten dute, beraiekin doalako.
Gorputz osoari eraso diezaiokete batera.
Duela pare bat hilabete gertatu zitzaidan bezala.
Nahiko gauza ohikoa da.
Hondoratu egin ninduten. Bi aste eta erdian ez nintzen suspertu.
Gora begiratu eta arreba, anaia eta lagun pila bat ikusi nituen. Eta pentsatu nuen, non nago?
Zertan ari zarete hemen?
Errepikatzen den esperientzia da.
Eta haiek erantzun zidaten: "Hiltzen ari zinelako.
Eta dena hemen bukatzen zela pentsatu genuen".
Behin baino gehiagotan gertatu zait hori.
Esperientzia arraroa da.
Jaiki eta pentsatzen hasten naiz: Zereginen zerrendatik, zer dago egiteke?
Zer ez dut egin?
Zer!
Bi aste eta erdi igaro dira?

Kaka zaharra!
Zer dabilta taldekideak?
Zer gertatu da astelehenetako ekipo bilerekin?
Eta ostiralekoekin?
Connecticut proiektuarekin?
Ekintzaren zurrunbiloan nabil. 2025erako kanpaina handi batean aritu naiz lanean.
Talde, langile eta profesional sindikal mordoa entrenatzen.
Horregatik, bihotza hausten dit ospitaleratzea iragarri behar izateak...
Baina, hala ere, hemen zuekin hitz egiten ari naiz eta lanean jarraituko dut.
Saiatuko naiz pixka bat idazten.
Badakizu, ezin naiz gelditu.
Baina, momentu honetan, denbora gehiago eskaintzen ari naiz lagun eta familia kideei.
Antolatzaile sindikal batek patronalaren aurkako A mailako borroka deitzen diegune
aurre egin behar die. Borrokarik gogorrenak dira.
Borroka horietan 18, 20, 25 langile deitzen dituzte, izutzen dituzte, arreta bereganatzen dute, kaleratzen dituzte...
Hori eta gehiago gertatzen da borroka mota horietan.
Borroka maila hori izan dut, patronalaren aurkako A mailako borroka deitzen diogun horietakoa.
A maila, B maila, C maila daude, antolatzaileen hizkeran.
20 urtez borroka hauetan egoteko plazera izan dudan langile guztiek ematen didaten kemena da. Jaiki eta arriskatu behar dute, apartekoak diren gauzak egin behar dituzte sindikatu bat osatzeko, solik...
Hortik ateratzen dut daukadan indarra.
Beraz, familiarekin eta lagunekin denbora gehiago pasatzen ari naiz.
Agian, urte hauetan, ez naiz beraiekin nahikoa denbora egon. Kanpainak errukigabeak dira.
Nire ustez, azken 20 urteetan, batez besteko lanaldia 19 ordu ingurukoa izan da.
Ez dut uste lo faltak nire sendatzeko gaitasuna kaltetu duenik. Errekuperatzen jarraitu dut.
Minbiziari buruz esateko geratzen zaidan gauza bakarra da, oraingoan ez dagoela atzera bueltarik.
Kolapsatu eta ospitaleetara joaten nintzen bakoitzean, estrategia bat izaten zenuten, ezta?
Estrategiak gara.
Estrategia bat naiz.
Esnatu eta pentsatzen nuen: Zein da hurrengo estrategia?
Oraingoan, ordea, estrategia etxeko ospitalizazioa dela esan zidaten. Ez baitago zer eginik.
Beraz, lagun eta familia kideekin pasatzen dudan denborarekin asko gozatzen ari naiz.
Segur aski, 50 lagunekin egon naiz azken bi asteetan.
Oso zoriontsu sentitzen naiz, hainbeste lagun on izateagatik.
Esango nuke, nire tribua dela. Beti deitu izan diet horrela.
Badakit jai eguna dela.

Baina, badago antolatzaile tribu bat, gutako 400, urtero irabazten jarraitzen duguna. Nahiz eta zuzendaritza nazionalak esan ezin genuela irabazi.

Irabazten jarraitzen dugun gutako 400, izan Chicagoko Irakasleen Sindikatuko jendea, izan Los Angelesko Maisu Batuen Sindikatukoa

Orain Shawn Fainen garaipena dugu.

2024ean Chattanooga gertatu antzeko zerbait dela sentitzen dut.

Eta, tira, Mercedesi irabazten badiote, erabatekoa izango da. 2012an bezala, Karen Lewis bikainarekin, erabat maite duguna eta minbiziagatik galdu genuena.

Baina, ospitaletik sartu irtenean, greba sinestezin horren buru izan zen...

Bai,

Chicagoko irakasleen greba. Denbora luzez greba handirik egon ez zenean, prestatu egin ziren eta euren lana egin.

Komunitatearen babesa zuten.

Prestaketa lan ikaragarria egin zuten bi urtez,

greba hori egin ahal izateko.

Supergehiengoa zuten taldeak eraiki zituzten Chicagoko eskola guztietan.

Eta 2012 iritsi zenean, herrialdea hartu zutenean. Antolatzaileek hartu zuten. Eta guztiek zioten: Zer gertatzen ari da Chicagon?

Eta mundu guztia Chicagora joaten zen 2012an Chicagoko Irakasleen Sindikatu boteretsuak egin zuena ikustera.

Gertaera hori greba handiak egin eta irabaz genezakeenaren ideia berreraikitzen hasi zen.

Greba handiak egin genitzakeen eta irabazi!

Eta hori hezkuntza eremu osoan gertatzen hasi zen.

Eta askoz ere kasu gehiago izan ditugu.

Beraz, badakigu lana ondo egiten dugunean, irabaz dezakegula.

400eko tribu hori. Horietatik 25 gutxienez Zoom bidez azken agurra ematera hurbildu zaizkit. Egoera hau esperientzia atsegin bihurtzen saiatu dira, nola irabazten dugun hausnartuz eta hitz eginez.

Herrialde osoko 300 edo 400 pertsonako talde honetan maitasun sakona egon dela uste dut.

Horietako batzuk, bide batez, Chattanooga kanpaina gidatzen ari ziren. Edo langileak Volkswagenen aurka trebatzen.

Bai, Volkswagenen aurka.

Tribuko kide batzuk Chattanooga borrokan egon ziren, metodoak daudelako.

Ezagutzen dugun diziplina bat eta metodo multzo bat dago. Badakigu ez dutela beti funtzionatzen, ezer ez da hutsezina, baina askotan funtzionatzen du.

Eta horrela, ia inoiz ez dut galdu Lan Harremanen Batzorde Nazionalerako hauteskunde bakar ere 20 urtean.

Hori azaltzen duen arrazoi bat dago.

Izan ere, antolatzaile asko daude.

Oso garrantzitsua da hori esatea.

Antolatzaile asko daude. Beraien izenak, nireak ez bezala, inork ez ditu inoiz ezagutuko.

Has ninteke izendatzen.

Izugarriak dira. Nire kamaradak dira.

Nire 400ak.

Tribua deitzen duguna.

Sekula ez dira jakingo haien izenak.
Eta, besterik gabe, langileei laguntzen die.
Besterik gabe, langileak entrenatu zituzten Volkswagenen aurkako garaipenerako.
Langile horiek entrenatzen laguntzen dute,
konfrontazioan patronalak hurrena egingo duenerako prestatzen.
Patronalaren aurretik ibili behar zara borrokan, gure metodoak erabiliz.
Bada modu bat patronala aurreratzeko.
Patronalak borrokarako dituen planei aurrea hartzea deitzen diogu.
Lehen minbizi hori izan nuelako bakarrik naiz idazle, idazle akzidentala.
Eta, orduan, Francis Fox Pivenek lehen zirriborroa irakurri eta doktoretza egitera eraman ninduen, eta No Shortcuts (Ez dago bidezidorrik) idaztera. Hori ere planifikatu gabe nuen.
Ez nuen karrera bukatu. Nire unibertsitate urteetan, gehiegitan atxilotu ninduten ikasle protestak egiten.
Besterik gabe, utzi egin nuen.
Baina, badakizu, ni bezain onak diren antolatzaile asko daude.
Ondo gaude.
Asko gara.
Eta irabaztea gustatzen zaigu.
Eta gustatzen zaigu langileei irabazten irakastea.
Zeintzuk dira metodoak?
Zer egin dezakegu?
Horretan ari gara.
Badakizu, 40.000 langile xume trebatu ditugu COVIDa hasi zenetik, bi urte eta erdian, gure trebakuntza orokorreko, Organizing for Power, programan.
Bada beste ikastaro bat maiatzaren 7tik aurrera.
Sei asteko antolakuntza ikastaroak dira.
Doakoak.
Taldean hartu behar da parte.
Baina, nagusiki, aitortza egin nahi diet antolatzaile guztiei. Ezer egin ez eta langileengan konfiantza galdu duten sindikatuko zuzendaritza nazionalako kide askoren zinismoaren aurrean, hor kanpoan irabazten, irabazten eta irabazten jarraitzen duten antolatzaile guztiei egin nahi diet aitortza.
Sindikatuak zuzendaritzak langileak antolatzeko baliabiderik ez du jarri.
Eta abokatuak kontratatzen hasi ziren, sindikatuaren irudia kaltetu zuten, akziodunen kanpainak egin zituzten..
Denetik egin zuten, langile estatubatuarrekin hitz egitea izan ezik.
Eta kontua da, gure energia langile estatubatuarrekin benetan konprometitzeko inbertitzen dugunean, baietz bozkatzeko dietela sindikatuei.
Lan hori egiten jarraitu du antolatzaile talde horrek. Eta horrela jarraituko du ni hil eta denbora luzez..
Maite ditut.
Askoz jende gehiago dute irakasteko.
Une erabakigarrian gaude.
Shawn Fainen lidergoarekin, Mercedesen planta irabaz bagenezake, AEBko Hegoaldearen historia aldatzear egon gaitzake.
Baina gure inguruan arrisku handia ere badago, ezta?

Trump gainean dugu.

Polarizazio handia dago.

Eta gauza bat esan nahi dut. Kanpaina sindikal eder hau, Volkswagenean ikusi berri dugun bezala, %72ko aldeaz irabaziz...

zabaltzen ari da.

Lan mota hau, zabaltzen ari da.

Eta horrelako garaipenak lortzen direnean, herrialdeko eta munduko beste langile batzuk, baina batez ere herrialdekoak, pentsatzen hasten dira:

"Aizu, agian guk ere egin dezakegu hori".

Nola egin dezakegu?

20 urtez, herrialdeko sindikatuetakako liderrak ez dira ausartak izan.

Shawn Fain haize freskoa da.

Hain desberdina, hain prest kalera irten eta arriskuei aurre egin eta esateko:

"Uste dut langile estatubatuarrak nahikoa argiak direla ongi dagoena eta gaizki dagoena ezberdintzeko, baldin eta haiekin aurrez aurreko hitz egiten badugu".

Eta egiten ari dira.

Harrigarria da.

Aitortza egin nahi diet liburuak idazten ari ez diren antolatzaile guztiei.

Minbizia nuelako idatzi nuen lehen liburua.

Eta minbiziarekin idatzi nuen laugarrena.

Eta aitortu behar dizuet, bosgarren liburuarekin ere hasia nagoela.

Baina, sentitzen dut. Ezin izango dut amaitu.

Nire bizitza osoko gaiari buruzkoa da, botereari buruzkoa.

Izena: "Leave No Power on the Table" (Ez laga inolako botererik)

Mugimendu sindikalean botere handia lagatzen dugu.

Eta nire iritziz, kanpaina bakoitzean, ez da botere izpirik ere laga behar langileek irabazi nahi badute eta bizitza aldatuko dieten hitzarmenak izan nahi badituzte.

UAWren akordioetan egin moduan.

Juan Gonzalez: Jane, pare bat aldiz aipatu dituzu zure hastapenak Hegoafrikako apartheidaren aurkako borrokan ikasle antolatzaile gisa.

Hitz egin dezakezu horretaz eta horrek zure aktibismoan izan duen eraginaz?

Jane McAlevey: Bai horixe!

68ko irudi horiek, Juan, sinestezinak ziren. Zu ere bertan zinen.

Baina, bai, bi fase egon ziren.

Esan nahi dut, historia laburtzeko, New Yorkeko Estatu Unibertsitatean 64 unibertsitate daudela.

Unibertsitate-ikastetxeak barne.

Estatuko 64 unibertsitate eta unibertsitate-ikastetxe.

Herrialdeko unibertsitate sistema publiko handiena da.

Eta iraganean, nik 18 edo 17 urte nituenean, ikasle elkarte oso indartsua genuen.

Estatu osoko ikasle-erakunde bat.

Ikasleen sindikatua hitza erabiltzen genuen.

Eta jendeak bat egin behar izan zuen.

Young Americans for Freedom (ikasleen erakunde kontserbadorea) izan genuen aurrez aurre. Ikasle elkarten kuoten aurkako kanpainak egiten zituzten.

Beraz, kuoten kanpainak irabazi behar genituen.

Esan nahi dut, kanpaina sindikal bat egitearen oso antzekoa izan zela. Hala ere, 20 urte ondoren aurkituko nuena baino zertxobait lasaiagoa.

Baina horrela, ikasle lider gisa, New Yorkeko Estatu Unibertsitateko ikasle mugimenduko presidente hautetsia bihurtu nintzen Buffalon, campusik handiengan. graduondoko ikasleak graduaurreko ikasleekin zeuden ikasleen ordezkari organuetan.

Beraz, 28.000 boto-emaileko unibertsoa neukan, eta, kanpaina oso gogor bati egin behar izan nion aurre, kirol talde eta fraternitateen aurka. Honela zioten: Nor da ikasle gobernua hartu nahi duen ezkertiar hau?

Eserleku guztiak gureganatu genituen.

28 lagun lortu genituen.

Zerrenda bat egin genuen.

Aita politikaria zen.

Eta esan zidan: Ez zaitez bakarrik joan.

Gobernatu nahi baduzu,

zerrenda osoa bete, postu guztiak.

Orduan, gutako 28 ikasle senaturako postulatu ginen, postu guztietan.

Txakur ehiztari postu bat balego, horretarako ere norbait lortuko genuke.

Ikasle gobernu osoa hartu genuen, eta, jarraian, Hegoafrikako unibertsitatean inbertitzeari uzteko borrokan murgildu ginen buru-belarri.

Handik urtebetera, estatuko ikasleen sindikatuko arduradun hautatu ninduten.

Horrek estatuko batzarrean dokumentuak, finantza-erregistroak... Zuzendaritza-batzordeko kide batek eskura ditzakeen gauza guztietarako sarbide ofiziala eman zidan.

Ez zen batere ohikoa estatu mailako ikasle-sindikatu indartsu bat edukitzea. Ez behintzat, presidentea estatuko zuzendaritza-batzordeko kide izateko modukoa.

Laburbilduz, behin baino gehiagotan aurkeztu genuen inbertitzeari uzteko ebazpen bat, presidente bihurtu baino lehen.

Baina estrategia aldatu genuen.

Mario Cuomogan zentratzen hasi ginen .

Mariok, oso argia izaki, bere burua presidente izateko proposatu nahi zuen.

Erabaki genuen, beraz, estrategia aldatzea eta Mario Cuomo, kargurako postulatu behar zen demokrata xarmangarri hori, presionatzea.

Eta esan

genion: "Aizu, zu zara New Yorkeko Estatu Unibertsitatea benetan zuzentzen duena.

eta kanpaina honen arduradun egingo zaitugu", presidente izan nahi duen demokrata liberal jauna.

Kanpainan parte hartzen ez baduzu, Hegoafrikan gertatzen ari denaren erantzunkide egingo zaitugu, Nelson Mandelaren atxiloteta, Hegoafrika erahilketak, apartheidak...

Laugarren bozketaren egunean, nire lehen bozketak izan zen zuzendaritza batzordeko kide gisa, ebazpena aurkeztu genuen.

Zuzendaritzako kide izanik, atzeko aldera pasatzeko baimena nuen.

Azpialdean, ezkutuan, neramatzan kateak eta giltzarrapoak estaltzen zituen gona handi bat jantzi nuen.

Altxatu eta ebazpena aurkeztea izan zen lehen pausoa.

Espero genuen ezkoa jasotzea.

Gero, atsedena hartu eta komunera joatekoa nintzen.

Hala egin nuen, eta eskailerak jaitsi nituen.
Egia esan, ehunka langile zeuden ezkutuan zain.
Eta finantza bulegoa hartu genuen. Berehala geldiarazi nahi genuen estatuko unibertsitate sistemaren funtzionamendua.
Beraz, ehunka ikasle prest genituen Estatuko unibertsitate-sistema osoko finantza-bulegoa okupatzeko, ez soilik campus bakarrekoa.
Ixtea lortu genuen.
Egia esan, oso une bizia izan zen.
Asko maite genituen idazkari guztiei deitu behar izan genien, eta atea giltzarrapoz itxi baino lehen berehala alde egiteko gomendatu.
Kanpaina horrek eragin zuen mugimenduaren historian ordura arteko desinbertsiorik handiena.
Gertatzen ari zena azaleratu genuen.
Neurriz kanpoko erabakiak hartu zituzten.
Kartzelan sartu ninduten, beste bi ikasle liderrekin batera.
Pentsa ezazu, ni 19 urterekin, kartzelara bidali ninduten.
Ez zuten oso argi jokatu.
Hor ikasten duzu nagusi batek neurritz kanpo jokatzen duela.
ANC izan genuen gure epaiketari jarraipena egiten.
Gertatzen ari zena publikoki kontatzea gustuko genuen.
Pentsatzen genuen: gure bila joango dira, kargu errealak leporatuko dizkigute, niri eta beste bi liderrei.
Eta esan genuen: "Estrategia! Estrategia!
Aitak bezala.
Berriro ere, politikari ezkertiar baten alaba izatea baliagarria izan zen, estrategian zentratu bainintzen.
Beraz, atxilotu egin gintuzten.
Beste inor ez zuten atxilotu kartzelan sartzeko moduko karguekin.
Kartzelara gindoazen.
Orduan, bada: "Egin diezaiozun aurre erronkari!"
Epaitegietatik kanpo gurekin akordio batera iristen saiatu ziren, eta esan ziguten: "Onartzen baduzu ikasleen lider gisa protesta gehiago ez egitea, karguak kenduko dizkizugu".
Eta nik esan nuen: Nola demonio! Ez!
Unibertsitateko campusetan protesta egiten jarraitzea ez didate galaraziko.
Estatu-mailako ikasle-liderra naiz.
Ezezkoa erantzun bezain pronto, gure "egitura probei" aurre egin behar izan genien.
Beno, batez ere A eta C.
Epaiketan mundu guztiak testigantza ematea lortu genuen.
Eta, aldi berean, milaka lagun atera ziren protesta egitera.
Kartzelan sartu ninduten.
Une horretan, eta Google baino askoz lehenagoko garaiez ari gara, Estatu Batu osoan zehar nire argazkiak zeuden espetxetik ateratzen.
AP (The Associated Press) han zegoen, The New York Times ere bai.
Badakizu, ikasle-lider bat kartzelatik ateratzen, aurreko gauean harturiko erabaki federal tamalgarri baten ondorioz.
15 egun egon ginen atxiloketa federalpean.

Akats handia izan zen beraien aldetik.
Baina, garrantzitsuena da estrategia bihurtu genuela.
Esan genuen: Neurritz kanpo aritu zarete.
Irabaziko dizuegu.
Azkenean, urtebete egitura probak egiten aritu ondoren, hedabide nazionaletan elkarrizketa pila bat, Columbiako ikasleekin lanketa, Tana Kill Jones eta Columbiako jende pilo batekin lan egin eta gero...
Sartu ginenean, nahiko ziur nengoen bozketa irabaziko genuela, egia esan ez erabat ziur, baina...
Judith Moyers, Bill Moyersen emaztea, batzarrean zegoen.
Liberal asko zeuden batzarrean.
Gehiegikeriaz aritu izana erabakigarria izan zen. Kolpeengatik eta bortitzegiak izan zirelako gu finantza bulegotik ateratzean.
Apartheidaren amaieraren alde borrokatzeagatik ikasle mordoa kartzelan sartzea... kondena ofizial bat balego bezala...
Bozketa irabazi genuenean, irabazteak dakarren poza sentitzen hasi nintzen.
Gerora, NLRBko hauteskundeetan askotan bizi izan dudana.
Izan ere, irabaztea da egin behar dugun gauzarik garrantzitsuena.
Kontua ez da soilik borrokatzea.
Irabazi egin behar dugu, Chattanooga egin genuen bezala.
Izan ere, irabazi egin behar dugu.
Ez da nahikoa botereari egia esatea.
Hori gauza ona da.
Ez da nahikoa gure kausa babesten dutela badakigun lankideak biltzea.
Bizi lezio bat dago hemen. Ondo azaldu nahi dut hau. Badago ikasgai bat ikasle antolakuntzatik ateratzen dudana. Bide batez esanda, CIAk campusean zuen presentziagatik protesta egiten jarraitu genuen.
Coloradoko Unibertsitatera joan nintzen. Bertan matrikula eten zidaten eta poliziak ia hil arte jo ninduen, porrarekin ia ito, gas negar-eragilea bota...
Krudela izan zen Coloradokoa.
Han, gutariko bosti matrikula eten eta kanpusetik kanporatu gintuzten.
Beraz, ez nuen sekula lizentziatura bukatu.

Amy Goodman: Pinkertonsengan pentsarazten dit honek guztiak.

Egia!

Amy Goodman: Benetan.

Zintzoki, esan nahi dut.

Esperientzia gogor hau bizi izan nuen, 30 edo 40ko hamarkadetako pikete baten moduan, polizia erraldoiek behin baino gehiagotan jipoitu ninduten.

Baina, nire ustez, azken 20 edo 25 urteetan egin dudana ekarpenik nagusiena ideia hau bizirik mantentzea izan da: mobilizazioa, ona izanik eta gure lagunak sofatik altzarazi, ados gauden pertsonen manifestazio batean parte hartzea eramaten dituen arren... antolakuntzatik oso ezberdina da.

Izan ere, antolakuntzak eta antolatzaileok gure denbora eta arreta guztia eskaintzen dugu, izan ikasle eta unibertsitatearen arteko borrokan edo sindikatu baten zuzendaritzan

Gure misioa da goizero esnatzea eta hitz egiten ez diguten pertsonengan arreta jartzea, gurekin bat egiten ez duten pertsonengan, hauteskunde sindikaletan EZ

bozkatuko dutela pentsatzen dugun pertsonengan, edo ikasleen sindikatuaren kuotei EZ bozkatzea pentsatzen dutenengan, 18 urte nituenean.

Antolatzaileek uste dute gure lana dela enpresaburuak sindikatua zein txarra den sinestarazi dien pertsonekin konektatu eta haiengan arreta jartzea.

Hori da gure lanaldi osoko lana.

Gure lana den bezala, sindikatuaren aldeko aktibistak baditugu, hauek ardura eta lan zehatzak ematea.

Benetan garrantzitsuak diren zereginak. Hala nola kontaktuen eta telefono zenbakien datu baseak egin, informazio orriak eta buletinak, mezuak bidaltzea? Era guztietako gauzak, inteligentzia bilketa.

Baina langileei irakatsi behar diegu.

Ezin badituzte beren unitateko eta txandako gakoak diren liderrak erakarri, langilez langile egin beharreko lana...

Aktibistei erakusten diegu benetako liderrak nola erakarri.

Benetako liderrak ditugunean, kanpaina sindikal batean gehiengoetara irits gaitzke, edo unibertsitateko hauteskundeetan edo desinbertsioaren aldeko borrokan.

Benetako liderrekin supergehiengoak izan ditzakegu, hitz egiten ez diguten eta gurekin ados ez daudela pentsatzen duten pertsonak erakarriz.

Hori izan da nire gogoeta eta praktika nagusia azken 20 edo 25 urteetan.

Eta antolatzeko lan egin duten guztiek irabazten jarraitu dute, neurri handi batean.

Beti bezala, dena ez, noski.

Ez dugu dena irabazten.

Inork ez du egiten.

Baina asko irabazten dugu.

Orduan, uste dut apartheidaren aurkako ikasle lanarekin hasi zela dena, botereari buruzko hausnarketarekin eta borroka horretako estrategiarekin. Cuomo izan zen lehena, Borroka hark ikuspegia aldatu zion, estrategia legala modu eraginkorrean erabiliz.

Protesta jendetsuak izan ziren ondoren, aldeko botoa lortu eta New Yorkeko Estatu Unibertsitateak inbertitzeari uztea lortu genuen arte.

Juan Gonzalez: Jane, galdetu nahi nizun, Estatu Batuetako ekoizpenaren eta lanaren izaera aldakorrak nola eragin dion antolatzaileek langileak antolatzen duten gaitasunari. Izan ere, gero eta produkzio gehiago eta handiagoa atzerria bidaltzen da eta enpresariak industria-eragiketa handietatik txikiagoetara igarotzen dira. Lanaren alderdi batzuk azpikontratatzeko saiatzen dira, ahal den neurrian, klase-kontzientzia murrizteko.

Nola eragin du horrek antolatzaileek Estatu Batuetan langileen boterea eraikitzen jarraitzeko duten gaitasuna?

Jane McAlevey: Bai, hori galdera bikaina da.

Bi gauza daudela uste dut.

Bata antolatu nahian jarraitu duten guztiek, baita mobilizazio lana egiten ari den jendeak ere, nahiz eta niretzat efektu txikiagoak izan... Denak irabazteko borrokatzen dira, baina 1995etik, esango nuke, AFL-CIO-n aldaketa gertatu eta John Sweeneyk kargua hartu zuenetik.

1995ean sartu nintzen ni, gutxi gorabehera.

Geroztik antolatzen eta borrokatzen saiatu diren guztiek bazekiten bi gauza egia zirela, edo gauza bat behintzat egia zela.

Bata da helburu estrategikoak bilatu behar genituela, herrialdeko langileak lan egiteko AEBtik irteera behartuta egon ez zitezen.

Horregatik bihurtu nintzen ospitaletako antolatzaile.

Oraindik ez dute asmatu nola eskaini Vietmanetik, Txinatik edo beste nonbaitetik, erizain batek eskaintzen didan arreta sinestezina.

Oraindik ez, behintzat!

Noiz gertatuko da hori, nork daki?

Beraz, azken 20 edo 25 urteak helburu estrategikoak eta funtsezko elementuak bilatzen eman ditugu, langileak AEBetatik alde egin behar ez izateko. AEB.

Hori da zati bat.

Eta bi. Horrelako kanpainetan irabazteko, non, alde batetik, langile kopurua murriztu den. Badakizu, antolatzen lagundu dudan ospitalerik handienak 2.000 edo 3.000 langilekoak izan dira.

Hori kopuru polita da.

Hauteskundeak eta negoziazio kolektiboa 2.000 edo 3.000 langilerentzat.

Baina asko txikiagoak dira.

Asko 3. adinekoen egoitzak dira.

Beste asko... Txikienean, Starbucks batean, 20 langile egon daitezke.

Helburuetako asko, helburu estrategikoetako asko, murriztuz joan ziren.

Beraz, uste dut estrategia doikuntza bat egin behar izan genuela. Eta hori izan zen: nola eraiki dezakegu babes komunitario sakon bat langile horien inguruan?

Nola alda ditzakegu ausardiaz

eta pazientzia estrategikoz osasungintzako langileen baldintzak, horretarako hamaika argudio egonik? Edo, nola eraiki ditzakete hezkuntzako langileek harreman benetan biziak, benetako harremanak, herritarrekin? Pertsona horietako asko lehenengoak direnean haiei bizkarra ematen eskola hobeak, arreta medikoko sistema hobeak, langileen ratio hobeak eskatzeko greba deialdia egiten denean?

Horiei guztiei, misioak bultzatutako langileak deitzen diet nik.

Hau da, nire lanaren zati handi bat misioak bultzatutako langileen eremua deitzen dudan horretara bideratu dut.

Langile horiek izugarritzko gaitasuna dute komunitate osoa biltzeko.

Baina, zintzoki esanda, ez dago hori egiten duen sindikatu nahikorik.

Adibidez, ez dago nahikoa sindikaturik kanpainak bultzatzen dituzten pertsonen eta langile-kolektiboaren artean benetako loturak ezartzen dituenik.

Seguruenik horregatik egin nintzen ezagun.

Eta bigarrenik, mobilizazioaren aurrean, antolakuntzari buruzko eztabaidagatik.

Izan ere, oso nahita, egin ditudan kanpaina guztietan, lehenik eta behin lantokia diagnostikatzen dugu, lider guztiak behar bezala identifikatuta daudela ziurtatzen dugu, lankide guztiak borrokara eramaten ari diren liderrak.

Adibidez, sektore pribatuan, sindikatuaren koadro bat bera ere ezin da enpresan sartu.

Lana enpresako langileek egin behar dute.

Langile xumeek eraman behar dituzte kanpaina horiek aurrera.

Sektore pribatuan eman dut nire bizi-tza borrokan.

Badakizu, atxilotu egiten gaituzte behatz bat espaloian jartzen badugu.

Beraz, denbora honetan, antolatzaile sindikal on baten funtsa izan da, maisu izatea, entrenatzaile izatea.

Hori guztia irakatsi behar diegu langileei.

Izan ere, haiek dira beren kanpainak aurrera eraman behar dituztenak.

Eta hori hala izan da lider izateko plazera izan dudana borroka guztietan.

Orduan, behin lantoki baten barruan, 3. adinekoen egoitza batean, ospitale batean edo beste edozein tokitan gehiengo bat eraikita, grafiko bat marrazten hasten gara oso modu sistematikoan. Hitzez hitz grafikoak egiten ditugula diot.

Langileen eta beren lider erlijiosoen arteko loturak egiten ditugu...

Ba al dute elizarik edo gurtzarako zentrorik?

PTO edo Ordaindutako Aisialdian parte hartzen dute?

Tokiko elikagai banku batean sartuta daude?

Kirol ezberdinetako haur edo gazte ligetan entrenatzeko boluntarioak dira?

Langile bakoitzak bere komunitatean dituen konexio piloak bilatu eta sistematikoki mapeatzen ditugu.

Segur aski, gutako bostek bakarrik egingo dugu hau hitz egiten ari naizen mailan. Bide batez esanda, Chicagoko Irakasleen Sindikatuan ere egiten dute, langileek eurek, borrokarako hirugarren botere fronte guztiz berri bat ekar dezaketela erakusten ahalegintzen diren pertsonak dira.

Egia esan, enpleguak deslokalizatzea errazagoa den garai honetan, horrelako kanpainen funtsezkoa izan da estrategia antisindikalak garaitzea.

Horrela izaten ari da Chattanooga.

Kanpaina kolektibo handi bat egin beharko dute 4.300 langilerekin, eta langile horiek babesten jarraitu beharko genuke hitzarmenaren aldeko lehen negoziazioei ekiten dietenean.

Gogoan izan Estatu Batuetan lehen borroka, oso gogorra, ordezkari izateko bozketa irabaztea dela, egunero jendea izutzen, kaleratzen eta era guztietako gauzak egiten diren testuinguru batean.

Eta bigarren borroka lehen hitzarmen kolektiboa lortzeko da.

Horregatik idatzi nuen laugarren liburua.

Eta, ondoren, sentitzen dut, ez dut inolako botererik lagako, bosgarren liburua.

Baina laugarren liburua

Amy Goodman: Azaldu dezakezu!

Zoriontsu nago.

Tira, zoriontsu nago.

Oso pozik nago negoziazio kolektiboari buruzko laugarren liburua argitaratu dudalako, sindikatu batek gauetik goizera egin dezakeen aldaketarik erradikalena dela uste baitut.

Langile guztiei negoziazio prozesuan parte hartzen uzten irakatsi zidaten.

Sindikatu gehienek abokatu bat dakarte, pare bat lider hautetsi, agian bost pertsona egon daitezke gelan denera.

Hori gertatzen da AEBetako langileen %95ekin. Eta ez naiz txantxetan ari.

Horrela egiten dira negoziazioak.

30eko eta 40ko hamarkadetako tradizio askoz militanteago eta demokratikoagoan trebatu ginenok, langile guztiak ekartzen ditugu.

Literalki, langile guztiak.

Jakina, negoziatzen ari diren bitartean lan txandarik ez dutenek, noski.

Beraz, negoziatzaile nagusia izateko plazera badut, ehunka langile dira aretora sartzen garenean patronalari aurre egiten diotenak.

Horiek dira liburuan kontatzen ditudan istorioak.

Nola egin.

Neure adibideetako batzuk erabili ditut. Amaieran, ibilbide-orri bat ere idatzi dut.

Abby graduondoko ikasle bikaina izan zen niretzat. Berkeleyyn 48 elkarrizketa egin

ahal izan ditu liburu horretarako eta beste gauza askotarako.

Amy Goodman: Abby Lowlor?

Bai!

Baina lortu dugu.

Liburu hau ozta-ozta, baina garaiz argitaratzea lortu genuen.

Alegia, zera guzti hori egiten ari nintzen... badakizu...

Zein da hitza, McAlevey?

Binakako berrikusketa.

Badakizu, Oxford da.

Abby graduatu eta graduondoa bukatzen ari zen, zuzenbide fakultatea uztera zioan eta bere bizitzarekin jarraitzeko prestatzen ari zen.

Eta ni, minbiziak jota, kimioterapia tratamendu biziak pasatzen ari nintzen eta aldi berean orri eta orri gehiago berrikusten eta idazten, hil aurretik liburua argitaratu ahal izateko. Izan ere, ordurako hilda egongo nintzela esan baitzidaten.

Beraz, erlojuaren kontra egin dut korrika, binakako berrikusketaren erantzunak lortzeko.

Editore batekin, James Cook ?izena esango dut, Oxforden apartekoa izan baita nirekin?. Esan nion, James, minbizia dut.

Azkar joan behar dugu, azkar, liburu honekin.

Eta azkar joan ginen.

Liburu hau Estatu Batuetako langileei uzten diet.

Beste ezer irakurtzen ez badute ere, liburu hori irakurtzeak joko zelaia alda arazten du. Langileek eurek, nagusia mahaiaren beste aldean ikusten dutenean, ergel moduan jokatu eta beraien ezinen azalpenak ematen...

Eta aldi berean, Moody's-ekin izandako elkarrizketa entzuten dugunean, zenbat mila milioiko etekina lortuko duten esanez... eta esaten digutenean, oi, sentitzen dut, gizajoak gu...

Ez dugu sosik.

Ez dugu dirurik.

Nire negoziazio saio gustukoena da, langileei erakusten dizkiegunean ugazabek euren inbertitzaileei esaten ari zaizkien benetako zenbakiak.

Badakizu, aurkari ditugun korporazioak, orain sektore pribatuko ospitale handiak ere dira.

Ez dira ospitale txikiak, familiartekoak.

Horiek korporazio handiak dira, eta ospitale horien guztien jabe dira, batez ere hegoaldean, antisindikalak direlako.

Eta 300 langile ekartzen ditugu finantza zuzendariarekin negoziatuko dugun egunerako. Izan ere, hori egin daiteke ordezkartza sindikala daukagunean.

Esan dezakezu, norbaitek etorri behar du eman zenizkigun finantza-datuak azaltzera.

Sindikalizatuta ez dauden langileek ez dute enpresaren kontuak ezagutzeko eskubiderik.

Sindikalizatutako langileek bai, ordea.

Beraz, horiek dira beti kapitalismoari buruzko nire saio kutunetako batzuk.

Kapitalismo hitza esan beharrik ere ez daukat.

Horixe da gaurko lezioa kapitalismoak nola funtzionatzen duenaren inguruan.

Gezurra esaten dizute, lerdo bat bazina bezala, zenbat diru dutenaren inguruan, eta gero jaiki eta aretotik ateratzen dira.

Eta, normalean, negoziazio saio horretatik aurrera, joko arauak aldatzen dira.

Beraz, zergatik eduki nahiko dituzte bost pertsona, horietako bat abokatua eta sindikatuko bi delegatu hautetsi, 300, 400 edo 500 erizain izan beharrean finantza zuzendariari lotsagabe gezurretan erreparatzen?

Hori opari bat da!

Eta langileak negoziazioetara eramatea da egin daitekeen gauzarik erradikalenetako bat.

Ez dira inoiz lehengo berak izango.

Eta hori da, seguru asko, nire bizitzako oparirik berantiarrena, eta poz gehien ematen didana, liburu hori Abbyrekin garaiz atera ahal izatea.

Nire kanpainak izan ez ziren beste adibide handi batzuk ere baditugu.

Boston 26-ren "Batu Hemen" kanpaina handi bat dugu, duela urte batzuk amaitu zena. 48 hoteletako negoziazio-mahaiak elkartu zituzten.

Gauza bera egin zuten. Milaka langile zeuden gerentziari aurre eginez, gerentzia negoziatioetan sartu zenean.

Eta zer egin dezake nagusi batek milaka langile adi-adi begira dituenen? Eta ez soilik sindikatuak kontratatutako abokatua? Lasai asko gezurra esan diezaioketena?

Badakizu?

Oso ezberdina da.

Amy Goodman: Zein da zure analisia Bessemerren porrotaz, Amazon Bessemerren porrotaz, Alabamako sindikalizazio kanpainaz?

Eta honetaz ari gara, Auzitegi Gorena Starbucksen auzian, Memphiseko 7en auzian, audientzia egiten ari den egun berean.

Kasu hori azal dezakezu, Starbucksen Lan Harremanen Batzorde Nazionalaren aurkako audientzia bat dela kontuan hartuta.

Bai.

Tira, oro har, auzitegiez hitz egin beharko genuke.

Izan ere, Auzitegi Gorenean gertatzen ari dena, SpaceX, Amazon, Trader Joe's orain batu da eta Starbucksekin zera da, Lan Harremanen Batzorde Nazional osoa konstituzioaren aurkakotzat jotzeko batu direla.

Konstituzionala izan da 1935etik, eta, bat-batean, koheteak egiteko dirua nahi duten eta 10 yate baina gehiago dituzten mutil aberatsek batzuek erabaki dute:

O! Konstituzioaren aurkakoa da!

Hau da laburbilduz. Jendeak gehiago jakin nahi badu, The Nationen idatzi nuen artikulua modu zabalean kontaktzen du.

Hemen benetan kontrastea ikus daiteke.

Eta Bessemer... Beste behin ere, ez dut tentsioa sortu nahi sindikatuen eta estrategia sindikalen artean, baina benetan konpara dezakezu Chattanooga Bessemerrekin? edo "No Shortcuts"-en kontaktzen dudana Smithfield Foods-en kanpainarekin. Milaka langilek Txinako lantegi bat garaitu zuten, jabetza atzerritarrekoa, munduko txerri haragiaren ekoizpen plantarik handiena, Chattanooga esandako gauza asko eginez.

Beraz, funtsean, Bessemer ez zen langileek zuzendutako kanpaina bat izan.

Kanpotik zuzendutako kanpaina izan zen.

Han lan egiten zuten eta Amazonen beste instalazio batzuetan

lan egin zuten langile batzuk zituzten, baina, batez ere, lantokiaren kanpoaldean antolatuta zeuden...

Eskola zaharra ordezkatzeko du horrek: geldirik, enpresatik kanpo, "BAI" eskatzen zuten kartelak eusten.

Haietako pare bat ezagunak ziren.

Baina gehienak ez.

Langile gehienek ez zekiten nortzuk ziren.

Jende taldetxo bat zen.

Baina inoiz ez zuten egin hautaketa erraldoi batean erabakigarriak diren gazetako bakar bat ere.

Volkswageneko langileek egin zituztela esan ditudan gauzak:
kamiseta gorrien festak Volkswagenen lantegian...

Beraz, Bessemer kanpoko kanpaina bat besterik ez zen izan.

Ez zeukan "barne-batzordea" deitzen diogun hori, eta hori funtsezkoa da.

Volkswagenen lantegian, ez zuten adierazi hauteskundeetarako prest zeudenik, harik eta lider guztien %90eko estaldura izan zuten arte, ez soilik aktibistena, baita langileen liderrena ere.

Volkswagenen, langile liderren %90en babesa zutenean jakin zuten irabaziko zutela.

Festak ospatzen zituzten, lantokia hartzea deitzen diogu, gure hizkeran, badakizu, nagusiari zera erakusten ari balitzaizkio bezala: "Ez dizugu beldurrik, inondik inora ere!"

Denak zeuden, txanda guztiak, unitatez guztiak.

Bazenekien benetako lider organikoa zenuela, langileak arriskatzera bultzatuko dituen, benetako konfiantza ematen duen liderra delako.

Eta esaten zuten: bihar izango da gure kamiseta gorrien eguna. Denok jarriko ditugu lanera joateko.

Hori aurre-sindikala da.

Hori gidaritza tresna bat da.

Horri deitzen diogu fabrika hartzea.

Eta langileen konfiantza handitzeko modu bat da, erabakigarria.

Langileek borroka handi batean sartzeko konfiantzarik ez badute, ez dago zer eginik.

Hherri honetako langile klase guztiak behar du konfiantza dosi handi bat, Amerikako Estatu Batuetatik jasotzen ari direna baino askoz gehiago merezi dute.

Ez al da hala?

Beraz, kanpaina on baten bidez eraikitzen da langileen konfiantza.

Eta horrelakorik ez zen posible izan Bessemerren, ez zutelako lantegiko langile berberak bultzatutako kanpainarik garatu.

Langile batzuk bazituzten berekin, noski.

Baina, inoiz ez zuten izan %90eko babesa zuen komite baten antzekorik.

Ez zuten jendea parkingera ateratzen zen festarik egiten,

ezta kamisetak erakusten zituzten ospakizun handirik ere, nagusia jakinaren gainean egonda. Ez zuten programatzen hiru bozketa egunekin bat egiten zuen manifestazio publikorik.

Espero dut hori guztia Mercedesek Alabaman duen lantegian, maiatzaren 17ko hauteskundeak baino lehen, ikustea. Hor borroka gogorragoa izango da.

Baina benetan badago diferentzia bat.

Esan nahi dut, Bessemerren, aipatu ditudan gauza guztiak hartzen badituzu, eta ez soilik Volkswageni, idatzi eta gidatzen lagundu ditudan kanpainetako edozeini begiratzen badiozu, edo liburu berriko edozeini, Bostongo Unite Here-en greba handiari, New Jerseyko hezitzaileak.

Erizainak genituen Massachusettseko landa eremuan.

Borroka horietan guztietan, kanpaina arrakastatsu bati erreparatzen badiogu, lehenik

eta behin eraikitzen saiatzen gara.

Lehenik eta behin, lider fidagarriena identifikatu, eta, ondoren, langileen konfiantza eraikitzen hasi, arreta medikoko plan on bat merezi dutela ikusaraziz, soldata hobea merezi dutela.

Benetako oporrak merezi dituztela, ez bakarrik ordaindutako denbora librea.

Bizi kalitatea merezi dutela.

Hori ez izatearen prezioa da zuzendari exekutiboak zuzenean ateratzen direla euren yateetan, eta espazio-ontziekin jokatzeko dutela.

Beraz, hori da alde, eta alde asko zeuden.

Auzitegien kasuan, ezin dut Menphiseko 7etaz berariaz hitz egin, ez bainago egunean.

Orokorrean hitz egin dezaket eskaera horri buruz eta egiten ari direnari buruz.

Arazo hori du Sloan Kettering-en (minbiziaren tratamendurako) hiru astez jokoz kanpo egoteak.

Baina, herri honetan, baita ziklo politiko honetan ere, supergehiengoan antolaketa oso garrantzitsua izango da, hitza erabiltzen dut berriro ere hitza. Izan ere, Auzitegi Gorenean bost boto ditugu, ez dakigu Amy Cony Barretek zer egingo duen, baina ez du axola, bost boto antisindikalen egonko daudelako une honetan.

Eta ebazpenaren zain dauden pare bat kasu dituzte.

Eta dagoeneko epai gordinak eman dituzte azken urteetan.

Lan Harremanen Batzorde Nazionala konstituzioaren aurkakotzat jotzea helburu duten pare bat kasu dituzte bidean

"Janus kasua" herrialdeko erreferente legal bihurtzen saiatuko dira, Alito epaileak nahi duen bezala.

Herrialde osorako erreferentzia legala sektore pribatuan, sektore publikoan, nonahi.

Kasu bat dute, "CEMEX", iaz "Glacier Northwest auzitik" atera zena eta orain legeztatu dena, baina oraindik ez gara ondorioak ikusten ari.

Baina "Glacier Northwest" auziak funtsean esan zuen, hemendik aurrera, langileak grebara doazenean,

enpresariak greba zenbat kostatu zaion kalkula dezake, eta sindikatuari horren kostua kobratu.

Tira, hau zera da... erokeria ere ez da.

Erabat zentzugabea da!

Greba baten helburua enpresariari dirua kostatzea da.

Printzipio orokor bat dago, 1935etik aurrera, Lan Harremanen Lege Nazionala onartu zenetik. Langileak bidegabeki tratatzen ari badira irteera bat dutela, hau da, lan egiteari uztea eta greban deklaratzeko.

Beraz, aurreko zikloan kasu bat izan genuen Gorte Gorenean eta horren ondorioak oraindik ez ditugu ikusi, ez dute praktikara eraman, oraindik ez dira aplikatzen ari, baina egin dute.

Beraz, badakigu bost boto daudela, baita Amy gabe ere, eta, ziurrenik, seigarren boto bat ere egongo da.

Pertsona biziotsuenen, erasokorrenen, antisindikalenen, langileen eta langile boterearen aurkakoenenak direnen aldeko bost boto egonkor daude Auzitegi Gorenean.

Beraz, botereak eta parte-hartzeak eta liburu horrek, agian baita "No shortcuts" (Bidezidorrik ez) liburuak ere, benetan garrantzia izateko arrazoia da legez kanpoko greba asko egin beharko ditugula.

Badatoz.

Beraz, arriskuari muzin egiten dioten buruzagi sindikal nazionalak baditugu, une

honetan grebak egiteko beldur direnak, hori gainditzeko garaia dela baino ez dut esan nahi, ez baitugu denborarik izango arriskuari muzin egiteko.

Gure lana ondo egiten badugu, eskaera publikoak lortzen baditugu, % 70, 80, 90en babesarekin zera esaten duten eskaera publikoak:

"Prest nago, legezkoa edo legez kanpokoak izan".

Mobilizatzen hasi behar dugu, etorkizun hurbilean, grebak legez kanpokoak izango direlako, edo hainbeste diru konstatatuko zaizkigu, efektu bera izango dutela, legez kanpokoak balira bezala.

Beraz, %100 edo %95 greban, bat eginda, indartsu, komunitate osoaren babesarekin, eurekin batera, irabazi ahal izango dugu.

Beraz, jendeak oraintxe bertan hasi behar du hori praktikatzen, supergehiengoak eraikiz, irabaziz Volkswagenean egin moduan, eta beste leku askotan. Ordezkaritza sindikala izateko jendea egunero borrokan ari den leku guztietan.

Beraz, lanari ekin behar diogu eta jendeari irakatsi.

Ez da arinki eta ergelki arriskatu behar.

Antolatzaile gisa langileekin egin ditugun ebaluazio eta proba multzo batean oinarrituta emango dugu pausoa, langileek unean uneko egoeraren berri izanda.

Eta kolore bereko kamisetak jantzita eta aparkalekuan festa egitera aterata pertsonen %95 lortzen dugunean, badakigu irabaziko dugula.

Antzeko borroka eta garaipen askoz gehiago beharko dugu etorkizunari begira.

Izan ere, uste dut egungo Auzitegi Gorenarekin, grebak ilegalak izango direla laster.

Amy Goodman: Eta, hala ere, hainbesteko itxaropenari eusten diozu.

Azkenik, galdetu nahi dizut, zeure heriotzari aurre egiten diozun bitartean, nola daukazu baikortasun, distira eta argitasun maila hori, eta, era berean, nola eskaintzen diezun itxaropena, agian, zure egoera berean dauden pertsonen, minbiziari aurre egiten diozun bitartean?

Badakizu, Amy, bizitza handia izan dudala sentitzen dut.

40 aldiz bueltatu didate emandakoa. Ekologiaren aldeko militantzia, Highlanderko urteak, sindikatuaren aurretik egindako ikasle antolakuntza, lan sindikalaren protagonismoa nire bizitzan...

la 40 urtez, langileei eta jende arruntari botere egitura nola garaitu irakasteko ordaindu didate.

Gogor garaitu.

Eta asko irabazi.

Hala, sentitzen dut izugarri bizitza zoriontsua eta baliotsua izan dudala.

Familia eta lagunak kexatuko ziren, ziurrenik, 40 urte horietan ez nautelako behar beste ikusi.

Hori dela eta, jendearekin denbora gehiago pasatzen ari naiz une honetan, eta hori oso garrantzitsua da niretzat.

Baina hainbeste jende ikusi dut, dozenaka mila langile zero eta lurren aurka borrokan eta irabazten...

Fede amaigabea dut langileek irabazten jarraitzeko duten gaitasunean.

Eskuratu metodoak! Eskuratu diziplina!

Baina nik langile bakoitza animatzen jarraituko dut kanpaina bakoitzean, jada zuekin egongo ez naizen egunera arte.

Boterearekin zerikusia duten gai batzuei buruz ahalik eta azkarren idazten jarraitzea espero dut.

Eta minbiziaren aurkako borrokan ari den edonorentzat, badakizu... Ikaragarria da.

Itxaropena kentzen dizu.

Lazgarria da egun askotan.

Eta niretzat sinestezina izan dena da zein talderekin egiten dudan lan, zein talderekin aritu naizen lanean kanpaina handi batean, bereziki Connecticuten, urte batzuetako kanpaina moduko bat, sindikatu bikain batekin borrokarako prestatzen.

Badakit lanak jarraituko duela.

Beraz, horrek ematen dit lasaitasuna.

Liburuak argitaratu dira.

Prestakuntza-programa global eta nazionalak sendoak dira.

Taldeko pertsonak toki denetan ordezkatu naute.

Iaz, 2023 urte osoa pasatu nuen, ondorengotza planifikatzen, urtarrila zelako.

Nik beste urtarrilaren 6a deitzen diot, 2023ko urtarrilaren 6an, esan baitzidaten pare bat astetan hilko nintzela.

Eta familia hegan etorri zen mundu guztitik agur esateko, eta gero berriro agertu nintzen.

Baina, desberdina da oraingoan, orduan entsegu klinikoko botika bat zuten berehala emateko, magikoki funtzionatu zuena.

Baina badakizu, lanak jarraituko du.

Eta horrek egiten nau zoriontsu.

Asko planifikatu dut ondorengotza.

Lanak aurrera jarraituko du.

Eta langileek irabazten jarraitzen badute, pertsona bat eror daiteke, soldadu bat eror daiteke, beti hartu dut neure burua soldadutzat.

Badakizu, soldadu bat eroriko da borrokan, baina beste soldadu pila bat sortzen dira egunero, kanpaina horietan guztietan eta entrenamendu programa guztiarekin.

Eta, azkenean, irabaziko dutela uste dut. 2024an jendea nazkatuta baitago kapitalismoarekin.

Amy Goodman: Eta zure aholkua minbizia duten pertsonak zaintzen dituzten pertsonentzat? Zer iruditzen zaizu baliagarriagoa?

Badakizu, maitasun handia erakutsi...

Batzuetan, baita ere, denbora eta lekua emanez.

Egunero bakarka denbora behar duen pertsona horietakoa naiz, eta horrek nire zaintzaile bikainekin borrokara narama, nahiz eta gehienek ulertzen duten.

Baina, badakizu, janaria eskaini, bereziki, mezuak bidali.

Goizean esnatzen naizenean, adibidez.

Oraindik ez ditut irakurri etxeko ospitalizaziotik jaso ditudan gutun guztiak.

Eta sinestezina da.

Minutu batez gaizki sentitzen banaiz, buelta eman eta hurrengo gutunera irakurtzen dut.

Elissa Barazzaniren bat irakurri berri dut, aho zabalik utzi nau.

Jendeari bere bizitzak merezi izan duela eta borrokak jarraitzen duela jakinaraztea garrantzitsua da.

Uste dut hori behar dutela minbizia duten pertsonak, maitasun handia, samurtasun handia, janari osasungarri asko, dibertsio asko, hori egin badezakezu, noski.

Asko dibertitzen saiatzen ari gara.

"The Not Dead Yet Book Party" (Liburu festa oraindik hil gabe) izeneko liburuaren festa bat egin nuen "Power and Participation" (Boterea eta parte-hartzea) atera

zenean. Ordurako hilda egongo nintzela suposatzen zen. Bi komediante izan nituen, Dominique Nesperos eta Nato Green.

Ez dakit ezagutzen dituzun, baina bi komediante izan nituen hilda negoela suposatzen zen festako zeremonia-maisu.

Beraz, ahalik eta arinen eramaten saiatzea, eta, batez ere, niretzat, ondorengotza lantzea.

Baina uste dut minbiziaren aurka borrokan ari diren pertsona askorentzat, nahiago nuke, Jainkoa lagun, bizirik aterako balira lanari ekiteko esaten diet. Egin dezazuela egin behar duten lana errekuaratzeko.

Lan gogorra eta nekagarria da.

Eta nirea bezalako diagnostiko terminalago bati aurre egin behar dioten pertsonentzat, uste dut ziurrenik era guztietako gauza desberdinak beharko ditugula.

Baina, ezinbestean, behar duguna zera da, maitasun adierazpen asko, gutun asko, mezu elektronikoa asko eta laguntza handia borrokan zehar.

Amy Goodman: Jane, Audre Lorderen zita batekin amaitzen duzu.

"Zuhurra naiz eta ez diot ezeri beldurrik" esanez amaitzen duzu etxeko ospitalizazioari buruzko artikulua.

Sinestezina da, ezta?

Zer egingo genuke Audre Lorde gabe?

Egunean 300 bat aldiz irakurtzen nion neure buruari.

Eta aldi bakoitzean...

Ez zait asko gustatzen beldurraren ideia, baina uste dut 25 urteko borroka sindikaletan lagundu didala.

Nire aita Bigarren Mundu Gerrako pilotu bat izan zen, 28 misio egin zituen alemaniar eremuan eta etxera itzuli zen.

Ez zuten askok hori lortu.

Badakizu, pilotu baten alaba bezala hazi nintzenean, uste dut, besterik gabe, ez nintzela beldurrez hazi.

Eta Audre Lorderen aipu hori ikusi nuenean, pentsatu nuen, hau irakurri behar diot neure buruari egunean 300 bat aldiz, heriotzari aurre eginez, eta egingo dut.

Eta berak ere asko laguntzen dit, nire lagun eta adiskide guztiek bezala.

Amy Goodman: Beno, Jane, badakit zure ahizpa zain daukazula, eta eskerrak eman nahi dizkiet berari eta zure familiari, zu munduarekin partekatzeagatik.

Askok lagundu duzue, eta gogoz gehiagoren zain geratzen naiz.

Eskerrik asko, Amy.

Baita Democracy Now-ri ere! Nire bizitza osoan, batez ere nire helduaroan, zuekin egoten naiz 8:00etan, WBAI pizten dut, entzuten zaituztet, oinez nabilenean nire mugikorrean eramaten zaituztet...

Berri errealak jasotzen ditut Democracy Now-en!

Kaliforniako nire etxean bizi naizenean, KPFA sintonizatzen dut, eta programa hau mugimenduaren zati oso garrantzitsua da.

Amy Goodman: Gainera, KPFAk 75. urteurrena ospatuko du aurten.

Bai, bi irratiak funtsezkoak dira, baina Real News astean bost egunetan izatea benetan harrigarria da.

Beraz, eskerrik asko!

Amy Goodman: Eskerrik asko, Jane!

Jane McAlevey langileen mugimenduaren antolatzailea izan da 20 urtez baino gehiagoz.

Duela gutxi, "I've Stopped All Work to Turn to Home-Based Hospice for the Rest of My Time" izeneko artikulua idatzi zuen ("Lan oro utzi dut etxeko ospitalizaziora jotzeko, geratzen zaidan denboragatik").

Lau liburu idatzi ditu, tartean

- **"Rules to Win By" (Irabazteko arauak),**
- **"Power and Participation in Union Negotiations" (Boterea eta parte-hartzea negoziazio kolektiboan) Abby Lawlorrekin idatzia,**
- **"A Collective Bargain" (Negoziazio Kolektiboa) ere idatzi zuen,**
- **"Unions Organizing in the Fight for Democracy" (Antolakuntza sindikala eta demokraziaren aldeko borroka)**
- **"No Shortcuts, Organizing for Power in the New Gilded Age" (Bidezidorrik ez. Urrezko aro berrian boterea irabazteko antolakuntza) eta**
- **"Raising Expectations and Raising Hell, My Decade Fighting for the Labor Movement" liburua (Itxaropenak handituz eta istiluak sortuz. Nire hamarkada langileen mugimenduaren alde borrokan).**

Gure elkarrizketaren 1. zatia ikusteko, joan hona democracynow.org.

Amy Goodman naiz, Juan Gonzalezekin batera.

Eskerrik asko gurekin egoteagatik.